







# TXOKOLATEZKO ETXEA

	<p><b>GRETEL:</b> Begira ama, aita eta Hansel dira.</p> <p><b>AMA:</b> Kaixo! Janaria prest dago.</p> <p><b>AITA:</b> Zer dago bazkaltzeko?</p> <p><b>AMA:</b> Makarroiak eta okela.</p> <p><b>HANSEL:</b> Zein goxoa!</p> <p><b>AITA:</b> Goazen basora, egurra moztera.</p>
	<p><b>HANSEL eta GRETEL:</b> Aita, oso nekatuta gaude.</p> <p><b>AITA:</b> Eseri eta deskantsatu, nik ekarriko ditut egurrak. Zuek ez mugitu.</p> <p><b>HANSEL eta GRETEL:</b> Agur, aita!</p>
	<p><b>HONTZA:</b> Uuuuuu! Uuuuuuu!</p> <p><b>HANSEL eta GRETEL:</b> Ai amaaaa! Hontza da...goazen hemendik!</p>
	<p><b>GRETEL:</b> Hansel, galdu egin gara. Non dago aita?</p> <p><b>HANSEL:</b> Ez dakit baina hara! Etxe bat. Goazen-goazen!</p>
	<p><b>HANSEL eta GRETEL:</b> Haraaaa...txokolatezkoa da! Jan egingo dugu.</p> <p><b>SORGINA:</b> Kar, kar, kar, mutila jango dut!</p>
	<p><b>SORGINA:</b> Kaixo, nor zarete zuek?</p> <p><b>HANSEL:</b> Ni Hansel naiz.</p> <p><b>GRETEL:</b> Ni Gretel naiz.</p> <p><b>SORGINA:</b> Nire etxea gustatzen al zaizue?</p> <p><b>HANSEL eta GRETEL:</b> Bai, txokolatezko etxea da-eta.</p> <p><b>SORGINA:</b> Sartu, sartu barrura.</p>



**SORGINA:** Orain nireak zarete! Kar, kar, kar...Hansel, sartu kaiolan!  
**HANSEL:** Ez...  
**SORGINA:** Bai, eta zuk, Gretel, garbitu etxea txukun-txukun!  
**HANSEL:** Ireki kaiola, mesedez, ireki!  
**SORGINA:** Ezta pentsatu ere, jan egingo zaitut!  
**HANSEL:** Ni txikia eta argala naiz.  
**SORGINA:** Asko jan eta lodi-lodia egingo zara eta orduan, jan egingo zaitut!



**HANSEL:** Ez, ez jan... Mesedez...  
**SORGINA:** Jan ezazu oilaskoa, lodi-lodia egingo zara... Kar, kar, kar...  
**HANSEL:** Ñan-ñan...  
**SORGINA:** Loditu al zara?Ez dut ongi ikusten. Atera besoa kaiolatik, mesedez.  
**HANSEL:** Baaai...ukitu nire besoa!  
**SORGINA:** Aaaaa...baina zein argal zauden! Jan ezazu gehiago.  
**HANSEL:** Kar, kar, kar...sinetsi egin du.



**SORGINA:** Bost egun pasatu dira eta gaur Hansel jango dut, je, je, je!  
Gretel, etorri eta piztu labea, azkar!  
**GRETEL:** Bai, bai oraintxe piztuko dut.  
**SORGINA:** Gretel, ireki labeko atea, azkar!



**GRETEL:** Tururu, tarara, sorgina sutara!



**HANSEL:** Oso ongi Gretel, lagundu kaiolatik irteten!  
**GRETEL:** Banoa. Sorginaren dirua hartzen ari naiz.  
**HANSEL:** Eskerrik asko, goazen azkar-azkar hemendik!



**HANSEL eta GRETEL:** Begira, zikoina bat!  
**ZIKOINA:** Nirekin etorri nahi al duzue?  
**HANSEL eta GRETEL:** Baaaaiiii, mesedez, eraman gure etxera!